

# Egoeraren Azterketa



*Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa*

**6.700 pertsona gehiago  
behin-behinekotasun egoeran**

**2003: enplegu  
erregulazioen urtea**

**Ekonomiak haziz jarraitzen du**

**15-EBren azkenengotarikoak  
gizarte babesean**

**Pertsonako produktibitatea  
altuagoa EAEn EBn baino**

# Hego Euskal Herriko (\*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATA	AZKEN DATUA	12 HILABETE LEHENAGO	2003
<b>ENPLEGUA ETA LANGABEZIA</b>					
JARDUERA TASA	%	04 I	69,9	68,9	69,8
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	2001	69	69	69
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	04 I	1.141.200	1.123.700	1.140.000
SOLDATAKO BIZTANLERIA	KOPURUA	04 I	919.400	883.600	915.900
ALDI BATERAKOTASUN TASA	%	04 I	29,9	30,5	29,3
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	2002	13	13,2	13
BIZTANLERI LANGABETUA	KOPURUA	04 I	100.600	102.200	102.000
LANGABEZI TASA	%	04 I	8,1	8,3	8,3
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	04 MAR	8	8	8
" ELGEn	%	04 MAR	6,9	7,0	6,9
GAZTEEN LANGABEZI TASA	%	04 I	19,8	20,5	21,4
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	04 MAR	15,6	15,6	15,4
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA	%	04 I	10,5	11,2	11,2
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	04 MAR	8,9	8,9	8,9
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	04 URT-API	305.244	279.725	948.984
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	04 URT-API	27.219	25.770	73.879
<b>ENPLEGU ERREGULAZIOA</b>					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	03 URT-ABE	472	423	472
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	03 URT-ABE	15.578	8.130	15.578
<b>LAN ISTRIPUAK</b>					
BAJA HARTZEN DUTEN LANGILEAK	KOPURUA	03 URT-ABE	67.657	51.947	67.657
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	03 URT-ABE	902	704	902
<b>ESKAINNTZA ETA ESKARIA</b>					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALD.	04 URT-OTS	2,2	2,0	0,7
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn	% ALD.	03 URT-ABE	5,6	9,0	5,6
PRODUKZIO AHALMEN ERABILERA EAEn	%	04 I	77,8	80,4	79,5
BPGa EAEn	% ALD.	03 IV	2,5	2,3	2,4
BEGa NAFARROAn	% ALD.	03 IV	3,1	3,1	3
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN	% ALD.	03 IV	2,8	2,1	2,4
BPGa EUROPAKO BATASUNEAN	% ALD.	03 IV	0,9	1,2	0,7
<b>PREZIOAK</b>					
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN	%	04 APIRILA	2,3	3,1	2,6
" EUROPAKO BATASUNEAN	%	03 ABENDUA	1,8	2,2	1,8
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da. Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, INE.					

96. zbk. Egoeraren Azterketa 2004ko maiatza



# Aurkibidea

**SARRERA** .....3

## **EGOERA SOZIAL**

### **ETA EKONOMIKOARI**

**BURUZKO IRUZKINAK** .....4

1. Ekonomiak  
hazten segitzen du .....4
2. Aldi baterako soldatako  
6700 lagun gehiago urteko lehenengo  
hiruhilekoan .....4
3. Behin-behinekotasun  
gehiago .....5
4. 2003: enplegu  
erregulazioen urtea .....6
5. Istripuei buruzko datuak  
eta horien fidagarritasuna .....6

## **HIL HONETAKO**

**PUNTAKO GAIAK**.....8

1. 15-EBko azkenak,  
gizarte babesari dagokionez .....7
2. Adineko pertsonen  
zuzendutako gastua:  
txikiagoa EBean baino .....7
3. EBren gaintetik,  
pertsoneko produktibitateari  
dagokionez .....8

## **ERABILITAKO SIGLAK**

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
BEG	Balio Erantsi Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística

# EGOERAREN

A Z T E R K E T A

## Sarrera

Egoeraren Azterketaren zenbaki hone-  
tan Hego Euskal Herrian enpleguak  
urteko lehen hiruhilekoan izandako  
bilakaera aztertzen dugu, eta behin-  
behinekotasuna dela gure enpleguak  
gainditu beharreko oztopoa da heltzen  
garen ondoriorik nagusia. Behin-  
behinekotasun maila onartezin hau,  
ekonomiek hasiz jarraitzen duten tes-  
tinguru baten ematen da, hori fro-  
gatzeko EAE eta Nafarroako ekono-  
miek 2003an zehar izandako hazkun-  
deak aztertzen direlarik. Hileko punta-  
ko gaitan Europara begira jarri, eta  
beronekiko gizarte babesean eta pro-  
duktibitatean ematen diren aldeak  
aztertzen ditugu.

*\* Txosten hau 2004.eko maiatzaren 14an  
eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

## 1. Ekonomiak hazten segitzen du

**EAEko ekonomiak** %2,4ko **hazkundera** izan zuen 2003an (%2,3 lehenengo hiruhilekoan, %2,4 bigarrenean, eta %2,5 hirugarrenean eta laugarrenean). **Nafarroako BEGak** %3ko **igoera izan zuen** (%3,1 lehenengo hiruhilekoan, %3 bigarrenean, %2,9 hirugarrenean eta %3,1 laugarrenean). Datu horien arabera, EAEko ekonomia Espainiako estatukoaren proportzio berean hazi da, eta Nafarroako hazkundera EAEkoa eta estatukoa baino handixeagoa izan da. Hazkunderok EBk (15) izandakoa (%0,7) baino handiagoak dira, nabarmenki. Estatu Batuetako ekonomia, bestalde, %3,1 hazi zen 2003an.

### EAEko BPGaren ETA NAFARROAKO BEGaren URTEARTEKO HAZKUNDEAK % ALDAKETA. 2003

	I	II	III	IV	BATEZBEST.
BPG EAE	2,3	2,4	2,5	2,5	2,4
BEG NAFARROA	3,1	3,0	2,9	3,1	3,0

Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra

Sektorez sektore, eraikuntza da EAEn 2003an zehar igoerarik handiena izan duena (%4,1); horren ostean, zerbitzuak (%2,5) eta industria (%1,7) datoz, eta galtzaile handia nekazaritza eta arrantza sektorea da, %16,4ko jaitsierarekin. Nafarroan ere, eraikuntzak izan du hazkunderik handiena (%4,1), atzetik zerbitzuak (%3,7), nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza (Nafarroan sektore horrek %1,8ko igoera izan baitu) eta industria (%1,7) dituelarik.

### EAEKO BPGAREN ETA NAFARROAKO BEGAREN URTEARTEKO HAZKUNDEAK % ALDAKETA. 2003

	EAE	NAFARROA
Nekazaritza eta arrantza	-16,4	1,8
Industria	1,7	1,7
Eraikuntza	4,1	4,1
Zerbitzuak	2,5	3,7
- Merkatuko zerbitzuak	2,6	3,9
- Merkatutik kanpoko zerbitzuak	1,9	2,9
Balio erantsia oinarritzko prezioetan	<b>2,1</b>	<b>3,0</b>
Produktuen gaineko zerga garbiak	5,6	
<b>BPG merkatu prezioetan</b>	<b>2,4</b>	<b>3,0</b>

Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra

**EAEko Industri Produkzioaren Indizea** %2,2 hazi zen otsailera arte; horrek aurreko urtealdian izandakoa (%2) baino hazkundera handixeagoa erakusten du. Bestalde, **Nafarroako Industri Jardueraren Indizeak** %5,6ko igoera izan zuen 2003ko urtarrietik abendura bitarte; igoera hori 2002ko epealdi berekoa (%9) baino nabarmenki txikiagoa da. **EAEko Produkzio Ahalmeneren Erabilera** %77,8 handiagotu zen 2003ko laugarren hiruhilekoan, 2002ko epealdi berekoaren (%80,4) azpitik.

Beraz, puntu honetan, **Hego Euskal Herriko ekonomiak** gorantz segitzen duela atera daiteke ondorioz.

## 2. Aldi baterako soldatako 6700 lagun gehiago urteko lehenengo hiruhilekoan

Egoeraren Azterketaren atal honetan, Hego Euskal Herriko enpleguari buruzko 2004ko lehenengo hiruhilekoko datuak aztertuko ditugu, bai eta 2003aren amaieratik aurrera datuok izan duten bilakaera ere. Ohi bezala, Eustat estatistika erakundeak argitaraturiko Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) erabiliko dugu horretarako, bai eta Nafarroako Estatistika Institutuak argitaraturiko Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) esplotazio zehatza ere.

Lanean edo lan bila dabilzan 16 eta 64 urte bitarteko pertsonen portzentajea neurtzen duen **jarduera tasa** hamarren bat hazi da 2004ko lehenengo hiruhilekoan, eta, ondorioz, %69,9ra heldu da (%80,3 gizonen kasuan, eta %59,4, emakumeenean).



**Lanean dabilen biztanleriak** 1.200 laguneko hazkundera izan du (igoera osoa Nafarroan gertatu da); horrela, Hego Euskal Herrian lanpostua duten pertsonak 1.141.200 izatera iritsi dira. Lanean dabilen biztanleriak izan duen bilakaera oso gorabeheratsua da, generoari erreparatuz gero; izan ere, lanean dabilen emakumeak 7.900 gehiago direlarik, lanean dabilen gizonek 6.700 gutxiago dira eta.

Beraz, urteko lehenengo hiruhilekoan lana sortu egin dela esan dezakegu, baina oso erritimo motelean, aurreko urteetan gertatu zenez bestela. Ondorioz, argi dago *enpleguaren sorrera benetan moteltzen ari dela*, nahiz eta, ikusi dugunez, ekonomiak hazten segitzen duen.

**Soldatako biztanleria** 919.400 lagunek osatzen dute; datu horren arabera, 3.500 pertsonako hazkundera egon da hiruhilekoan zehar. Soldatako biztanleriaren hazkundera lanean dabilen biztanleriarena baino handiagoa izatearren arrazoia soldatakoak ez diren biztanleen kopuruaren jaitsiera da. Horrekin bat, soldatako langileak lanean dabilen biztanleriaren %80,6 dira (%77,7 gizon eta %84,6 emakume).

Enpleguaren kalitateak okerrera egin du lehenengo hiruhilekoan. **Behin-behineko egoeran** diharduten soldatako biztanleak (hau da, aldi baterako kontratua dutenak edo kontraturik ez dutenak) 6.700 gehiago dira; guztira, 275.000 dira egoera horretan dauden pertsonak. Hortaz, behin-behinekotasun tasa %29,9koa da, hots, aurreko hiruhilekoan baino 6 hamarren altuagoa. Horrek esan nahi du soldatako 10 lagunetik 3k nozitzen dituztela behin-behinekotasunaren ondorioak. Ezaugarri hori are nabarmenagoa da emakumeen kolektiboan, horien behin-behinekotasun tasa %36,6koa baita, eta gizonena, %24,8koa. Gainera, hiruhilekoan zehar, emakumeen behin-behinekotasuna 1,3 puntu hazi da, gizonena bere horretan geratu delarik. Gazteen behin-behinekotasun tasa %72,6koa da, 2004aren amaierakoa baino 2,7 puntu altuagoa, alegia.

*Enpleguaren aldagai guztietatik behin-behinekotasuna da Hego Euskal Herriaren eta Europako Batasuneko lehengo 15 kideen (15-EB) arteko jautzirik handiena erakusten duena; izan ere, gure behin-behinekotasun tasa 15-EBkoa (%13) baino 16,9 puntu handiagoa da, edo, bestela esateko, gure behin-behinekotasuna 15-EBkoaren bikoitza baino handiagoa da (2,3 bider handiagoa, zehazki). Behin-behi-*

nekotasunak agertzen duen alde hori txikiagoa da gizonen kasuan, atal horretan, bertoko tasa 15-EBkoa baino 12,8 puntu altuagoa baita, baina izugarri areagotzen da emakumeen kasuan, 15-EBkoa baino 22,6 puntu handiagoa izatera heltzen da eta.

### BEHIN-BEHINEKOTASUN TASA OROKORRA, GIZONENA ETA EMAKUMEENA EBn (2002) ETA HEHn (2004ko IV. HIRUHIL.)

	OROKORRA	GIZONENA	EMAKUMEENA
HEH	29,9	24,8	36,6
EB	13	12	14
Diferentzia (Kopurua)	16,9	12,8	22,6
Diferentzia (Aldiak)	2,3	2,1	2,6

*Iturriak: Eustat, Eurostat, Europako Batzordea*

**Langabezian dagoen biztanleriak** 1.400 laguneko jaitsiera izan du lehenengo hiruhilekoan (2.000 langabe gutxiago EAEn eta 600 gehiago Nafarroan). Jaitsiera emakumeen kolektiboan jazo da oso-osorik (3.250 langabe gutxiago), gizonetzko langabeen kopuruak 1.850eko igoera izan duelarik. Horrek langabezian dagoen biztanleriako genero-ezberdintasunak murrizten lagundu duen arren, oraindik ere, 100.600 langabeetarik %54,5 emakumezkoak dira, eta %45,5 gizonetzkoak.

**Langabezi tasa** %8,1ekoa da, 2003ko laugarren hiruhilekokoaren aldean ia ez baita aldaketarik jazo. Gizonen langabezi tasa (%6,4) 3 hamarren hazi da, emakumeena (%10,5) 7 hamarren jaitsi da, eta gazteena (%19,8) 1,6 puntu jaitsi.

## 3. Behin-behinekotasun gehiago

Aurreko atalean egiaztatu dugunez, Hego Euskal Herrian behin-behinekotasun tasa altua nozitzen dugu, eta, enpleguari dagokionez, horixe da, hain zuzen ere, 15-EBtik gehien urruntzen gaituen aldagaia. INEMen informazioak Hego Euskal Herrian 2004ko urtarriletik apirilera bitarte **sinatutako kontratuen kopurua** (kopuru osoa eta kontratu mugagabeena) eta 2003ko epealdi berarekiko izandako bilakera aztertzeke aukera ematen digu. Sinatutako kontratuak 305.244 izan dira, 2003ko aldi berean baino 25.519 gehiago. Kontratu horietarik 27.219 baino ez dira mugagabeak izan, hots, 2003ko urtarriletik apirilera bitarte sinatutako-

ak baino 1.449 gutxiago. Horren arabera, aldi baterako kontratuen portzentajea (%91,1) 2003ko epealdi berekoa (%90,8) baino handixeagoa da. Ildo horretan, 2003an sinatutako 100 kontratutik 8,9 besterik ez ziren mugagabeak izan; horrek argi erakusten du soldatako biztanleriaren kontratazioan egiten den iruzur handia.

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak argitaratutako azken informazioak **Aldi Baterako Lan Enpresen** (ABLEen) gaineko informazioa eta beroriek kudeatzen dituzten kontratuen kopurua aztertzeko aukera ematen digu. Informazio horren arabera, 2003an, Hegoaldean, 72 ABLE zeuden (2002an baino 4 gutxiago). Enpresa horien bitartez tramitatutako kontratuak 186.435 izan ziren (2002an baino 16.125 gehiago). Horrek erakusten duenez, horrelako enpresak gutxiago izan arren, beraien bitartez kudeatutako kontratuak askoz gehiago izan ziren. 2003an sinatutako kontratu guztien %19,6 tramitatu zuten, hain zuzen ere.

#### 4. 2003: enplegu erregulazioen urtea

2003an zehar, sarritan aipatu genuen **enplegu-erregulazioko** espedienteen kopuru handia. Urtealdiaren amaierako zifrek horixe frogatzen dute, 472 **erregulazio-espediteren** fitxak baimendu (2002an baino 49 gehiago) eta 15.578 langilek (2002an baino 7.448 gehiagok) nozitu zutelako espediente horien eragina. Horrek erakusten duenez, erregulazioko espedienteak aurkeztu dituzten enpresak gehiago izateaz gain, haien ondoriozko kalteak jasan dituzten langileen batez besteko kopurua handiago izan da.

Enplegu-erregulazio mota bakoitzaren ondorioak jasan dituen biztanleria aztertzean ikus dezakegunez, kaltetuetarik 10.964ri (%70,4) aldi baterako eten zaie kontratua; 4.459 pertsonari (%28,6) behin betiko ezeztatu zaie kontratua, eta, azkenik, 155i (%1) lanaldi murrizketa aplikatu zaie.

#### ENPLEGU ERREGULAZIOA JASAN DUTEN LANGILEAK HEGO EUSKAL HERRIA 2002-2003

	2003		2002	
	Kopurua	Guztiaren %	Kopurua	Guztiaren %
Aldi baterako etenaldia	10.964	70,4	4.404	54,2
Behin betiko etenaldia	4.459	28,6	3.705	45,6
Lanaldi murrizketa	155	1,0	21	0,3
<b>Erregulazioa guztira</b>	<b>15.578</b>		<b>8.130</b>	


Iturria: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa

#### 5. Istripuei buruzko datuak eta horien fidagarritasuna

2003an, 67.657 pertsonak nozitu zuten bajadun **lan istripua** (2002an baino 3.079 gutxiago). Istripu larriak eta hildakoak eragin zituztenak 902 izan ziren iaz (aurreko urtean baino 21 gutxiago).

Lehenengo begiratuan datuok positiboak badi-rudite ere, ez dira oso fidagarriak. Izan ere, laneko istripuak jakinarazteko sistema aldatu egin da, eta, orain, Delt@ delakoa erabiltzen da (2003tik aurrera hautazkoa zen, eta 2004tik aurrera, derrigorrezkoa). Horrela, datuak informatizaturik bidaltzeko betebeharra ezartzen zaie enpresei, eta istripuak jakinarazteko epea hilekoa da orain (lehen 3 eguneko epea zegoen). Horren eraginez, atzerapen izugarria egon da istripuen gaineko informazioa argitaratzean, batez ere Nafarroan. Eragozpen guztiak medio, laneko istripuak zenbatzeko sistema berri horren fidagarritasuna zalantzarria dela esan dezakegu.

Edonola ere, 2003an, iturri ofizialek argitara emandakoak baino 16 lagun gehiago hil ziren, gutxienez. Izan ere, estatistika ofizialetan ez dira ageri soldatakoak ez diren langileak.



Zenbaki honetan aztertuko ditugun puntako gaietarik lehenengo bietan, Eurostatek (Europako Batasuneko Estatistika Institutuak) gizarte-babesari buruz argitaratutako informazioa jorratuko dugu. Bertan ageri diren datuak bakarrik EBko estatuen gainekoak direnez, Espainiako estatukoa hartuko dugu erreferentziatzat kasu honetan; dena den, informazio horrek gure egoerari buruzko ideia egiten lagunduko digu, aipatutako gai horiei dagokionez. Hirugarren gaia Eustaten informazioaren azterketa izango da. Kasu horretan, beraz, EAEko informazioa daukagu, baina Nafarroakoa ez.

## 1

### 15-EBko azkenak, gizarte babesari dagokionez

Aipatutako informazioaren arabera, 2001ean **gizarte-babeserako** erabili zen **BPGaren ehunekoa** %27,5 izan zen 15-EBn, Espainiako estatuan xede horretara bideratutako BPGaren %20,1aren aldean. Beraz, Espainiako estatuak 15-EBko batez bestekoak baino 7,4 puntu gutxiago zuzendu zituen BPGtik gizarte-babesera. Irlanda (BPGaren %14,6) da Espainiako estatuak baino gizarte-gastu txikiagoa egin zuen bakarra.

Aldagai horrek 1992tik aurrera izan duen **bilakaera** aztertuta ikusten denez, 15-EBn BPGaren 0,2 puntuko jaitsiera jazo da, eta Espainiako estatuko jaitsiera, aldiz, 2,3 puntukoa izan da. Alegia: gizarte-gastuari BPGan dagokion ehunekoan, 1992an 15-EBrekiko zegoen 5,3 puntuko aldetik 7,4 puntuko aldera igaro gara.

**Biztanleko batez besteko gastua (erosteko ahalmenaren parekotasunaren** arabera, estatu kide guztien biztanleko gastua homogenotzen duena) aztertzen badugu, EBkoa 100ekoa izanik, Espainiako estatukoa 60koa dela ikus dezakegu, hots, Irlandakoaren berdina, eta bakarrik Portugalek (57) dauka 15-EBko estatu kide guztietatik Espainiakoa baino gizarte-gastu txikiagoa biztanleko.

## EUROPAKO GIZARTE BABESA 2001<sup>EAN</sup>

	Gizarte babesean gasturiko BPGaren %		Per capita gastua erosparekotasunean 15EB=100
	2001	1992	
Belgika	27,5	27,7	108
Danimarka	29,5	30,3	122
Alemania	29,8	27,6	114
Grezia	27,2	21,2	62
<b>Espainia</b>	<b>20,1</b>	<b>22,4</b>	<b>60</b>
Frantzia	30	29,3	113
Irlanda	14,6	20,3	60
Italia	25,6	26,2	97
Luxenburgo	21,2	22,5	165
Holanda	27,6	31,9	115
Austria	28,4	27,8	117
Portugal	23,9	18,4	57
Finlandia	25,8	33,6	88
Suedia	31,3	37,1	110
Erresuma Batua	27,2	27,9	97
<b>15 EB</b>	<b>27,5</b>	<b>27,7</b>	<b>100</b>

Iturria: Eurostat

## 2

### Adineko pertsonen zuzendutako gastua: txikiagoa EBean baino

Orain arte Europako Batasuna osatzen zuten 15 estatuetan gizarte-gastua nola banatzen den azter daiteke ondoko taulan.

Espainiar estatuak Europako batez bestekoaren aldean erakusten duen defizit handiena **adineko pertsonen** zuzentzen zaien gastuan dago: 15-EBk BPGaren %12,7 gastatzen du biztanleriaren sektore horretan; Espainiako estatuak, aldiz, %9,1 bideratzen du xede horretara, hots, 15 estatu kideek batez beste baino 3,5 puntu gutxiago.

Gaixotasunei eta osasuna zaintzeari eta familia eta seme-alabei dagokionez, Espainiako estatuak 15-EBko batezbestekoak baino 1,7 puntu gutxiago gastatzen du. Zehazki, 15-EBk BPGaren %7,8 erabiltzen du **gaixotasunari aurre egin eta osasuna zaintzeko**, Espainiako estatuak horretan BPGaren %6 gastatzen duelarik. **Familiari eta seme-alabei** dagokionez, 15-EBk %2,2ko gastua du, Espainiako estatuaren %0,5eko gastuaren aldean.

**Minusbaliotasunaren** atalean, BPGaren 0,7 puntuko defizita daukagu 15 estatu kideen batez bestekoaren aldean, eta **etxebizitza, gizarte-bazterketa eta bestelako ataletan**, 0,6 puntuko jauzia. **Langabezia** da Espainiako estatuari 15-EBri baino diru portzentaje handiagoa daramakion atal bakarra: BPGaren 0,9 puntu gehiago gastatzen du Espainiako estatuak atal horretan, bertan dagoen langabezia handiagoaren eraginez, hain zuzen.

### GIZARTE ONUREN BANAKETA FUNTZIO TALDEEN ARABERA (BPGAREN %). 2001

	Adineko pertsonak	Gaixotasuna osasun zaintza	Familia haurrak	Minusbaliotasuna	Langabezia	Etxebiz. bazterketa
BELGIKA	12,0	6,9	2,4	2,5	3,2	0,4
DANIMARKA	11,2	6,0	3,9	3,7	3,0	1,8
ALEMANIA	12,6	8,6	3,1	2,3	2,4	0,7
GREZIA	14,0	7,0	1,9	1,4	1,6	1,4
<b>ESPAINIA</b>	<b>9,1</b>	<b>6,0</b>	<b>0,5</b>	<b>1,5</b>	<b>2,6</b>	<b>0,3</b>
FRANTZIA	13,1	8,8	2,9	1,8	2,1	1,3
IRLANDA	3,6	6,3	1,8	0,8	1,2	0,8
ITALIA	15,9	6,7	1,0	1,5	0,4	0,1
LUXENBURGO	8,4	5,4	3,6	3,0	0,5	0,3
HOLANDA	11,5	8,4	1,2	3,2	1,4	1,9
AUSTRIA	14,1	7,0	3,0	2,3	1,4	0,6
PORTUGAL	10,9	7,5	1,3	2,9	0,9	0,3
FINLANDIA	9,4	6,3	3,1	3,5	2,5	0,9
SUEDIA	12,2	9,1	3,0	3,9	1,8	1,3
ERRESUMA B.	12,6	7,6	1,8	2,6	0,8	1,7
<b>15 EB</b>	<b>12,7</b>	<b>7,8</b>	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>	<b>1,7</b>	<b>1,0</b>

Fuente: Eurostat

3

## EBren gainera, pertsonako produktibitateari dagokionez

Eustatek (Euskal Estatistika Erakundeak) lan-produktibitatea aztertzeke aukera ematen duen txosten bat prestatu du. Txosten horretan, lanean dabilen pertsona bakoitzeko produktibitatea azter daiteke herrialdez herrialde, eta EAEko datuak ere ageri dira bertan. EBko batez besteko produktibitatea 100 puntuko dela emanda, EAEk 115,1eko produktibitatea dauka;

hau da: **EAEko batez besteko produktibitatea EBkoa baino 15,1 puntu handiagoa da.** EBko 25 estatu kideetarik, bakarrik Belgikak (118,9), Irlandak (124,1) eta Luxenburgok (131,7) daukate EAEkoa baino lan-produktibitate handiagoa, lanean dabilen pertsonako.

Hego Euskal Herrian, soldaten igoera murrizten saiatzen ari dira enpresa batzuk, eta presioa egiteko, enpresa beste herrialde batera aldatzeko mehatxua egiten dute, hemengo lan-kostuak EBko estatu kide berrietakoak baino askoz handiagoak direlako argudioa emanez. Argudio hori berez erortzen da; izan ere, **lan-kostuak ez dira enpresentzat herrialdez aldatzea erabakitzeke bezain irizpide pisutsua** (honi buruzko datu berriak egoeraren azterketaren hurrengo zenbakietan landuko ditugu).

Gainera, produktibitateak eta beste faktore ugari indarra eta sinesgarritasuna kentzen dizkiote argudio horri. Eustatek argitaratutako taulan, **EBn 2004ko maiatzean sartu berri diren herrialdeetako** pertsonako lan-produktibitatea ere ageri da. Informazio hori aztertzean argi ikus daitekeenez, herrialde horietako **produktibitatea EAEko baino askoz txikiagoa da.** Estatu berrietarik produktibitate handiena duena Malta da (89,8), EAEkoa baino %22 txikiagoa alegia. Pertsonako lan-produktibitatearik txikiena Letoniari dagokio (37,1), EAEkoa baino %67,8 txikiagoa, hain zuzen ere.

### LAN PRODUKTIBITEA, LANEAN DABILEN PERTSONAKO ETA HERRIALDEZ HERRIALDE 2002

15 EB	100,0	EAE	115,1
BELGIKA	118,9	ERRESUMA BATUA	96,3
DANIMARKA	97,2	SUEDIA	95,8
ALEMANIA	94,9	FINLANDIA	100,3
GREZIA	89,1	PORTUGAL	65,0
ESPAINIAR ESTATUA	95,5	AUSTRIA	98,2
FRANTZIA	114,8	HOLANDA	96,3
IRLANDA	124,1	LUXENBURGO	131,7
ITALIA	106,3		
<b>2004ko maiatzean atxekituriko herrialdeak</b>			
TXIPRE	78,3	ESLOVAKIA	56,2
TXEKIAR ERREP.	53,7	POLONIA	48,8
ESTONIA	41,8	ESLOVENIA	68,4
HUNGARIA	62,6	MALTA	89,8
LITUANIA	41,9	LETONIA	37,1
<b>ELGeko beste batzuk</b>			
ESTATU BATUAK	119,1	JAPONIA	87,6

Iturria: Eustat